



Arartekoaren Ebazpena, 2010eko otsailaren 19koa. Horren bidez, Pasaiaiko Udalari gomendatzen zaio gas kanalizazioa jartzeko lizentzia eman dezala, proiektuak kanalizazioa arau subsidiarioetan ezarritakoaren arabera estaltzen duen kasuetan.

Aurrekariak

- Pasaia Donibaneko jabekideen bi komunitatek adierazi digute Pasaiaiko Udalak ezezkoa eman diola beren higiezinetan gas naturala eramateko hodiak jartzeko obrarako behar den udal lizentziari.

Aurkeztutako instalazio proiektuan egokitzapen batzuk egin ondoren, bi komunitateek proposatu dute gasa etxebizitzetara eraikinaren kanpoko atzeko fatxadatik doan kanalizazio bertikal baten bidez eramatea. Proiektuak kanalizazioak fatxadaren integrazioa irtenbide estetiko bat proposatzen du: fatxadaren kolore bera duen txapa galbanizatuko "u" profil baten bidez fatxadako hodiak disimulatzea.

Horrelako instalazioak indarrean dagoen araudi teknikoak arautzen ditu eta proposamen horrek aintzat hartu ditu, gasa banatzen duen konpainiak araudiari jarraiki dituen baldintzak. Araudi tekniko horrek hodiak agerian egotea edo zorroen barruan jartzea ahalbidetzen du, baina ez du onartzen hodiak horman sartzea. Alde horretatik, jabekideen komunitateetako batek egindako eskaerari dagokionez, Industria Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoak Pasaiaiko Udalera jo zuen, 2008ko urriko ofizio bidez, eta horren bidez betekizunak gogorarazi zituen.

Pasaiaiko Udalak, ordea, arkitekto teknikoak egindako aurkako txostena ikusi ondoren, ez zuen eskaera bi kasuetan onartu. Txostenean arkitektoak dio proposatutako kanalizazio bertikala plangintzaren aurka doala "*Pasaiaiko UOetan lortu nahi zena ez baita lortu. UOen helburua ondare urbanizatua berreskuratzea da*". Ildo horretan, Pasaiaiko Udalaren arau subsidiarioetako 175.2. artikuluan ezarritako betekizuna aipatzen du.

"Finka bakoitzeko hartune orokorretik abiatu eta goranzko norabidean eta bertikalki kontsumo-gune desberdinetara doazen kanalizazioak, barne-patioetan edo eraonbide-kaxa aireztatu eta irisgarrietan barrena joango dira beti; behar bezala moztututa daudenean bakarrik baimendu ahal izango da haiek edifikazioaren kanpoko fatxadaren ezartzea (esekitegien barruan, sareta baten atzetik, aireztatutako kaxaren barruan, edo fatxadaren eraketa arkitektonikoan egoki integrazten diren bestelako soluzioen bitartez)."





Erreklamatzaleek adierazi dute ez daudela ados udalak emandako ezezkoarekin. Izan ere, euren ustez, instalazio proiektuaren proposamenak arau subsidiarioko artikulua horretan ezarritakoa betetzen du. Bi komunitateek proposatu dute instalazioa eraikinaren atzeko kanpoko fatxadatik igarotzea, euren komunitateek ez dutelako barneko patioirik ezta esekilekurik ere. Proposamen horrek ez luke kalterik eragingo ondare urbanizatuan. Izan ere, eraikin horrek ez du babesik eta ezta kultura balioa duen elementurik ere. Gainera, adierazi dute Pasaiako Udalak antzeko ezaugarri urbanistikoak eta arkitektonikoak dituzten inguruko beste eraikin batzuetan kanpoko fatxadan instalazioa egitea baimendu duela.

- Arartekoaren erakundeak Pasaiako Udalera jo du eta hala, udalak gai honi buruz duen irizpidea zein den argitzeko eta arau subsidiarioen 175.2 artikulua interpretazioa zein den jakiteko komunitate horiek egin duten erreklamazioa helarazi dio, batez ere, administrazio arduradunak industria segurtasunari dagokionez dituen betekizunak aintzat hartuta eta kanpoko fatxadetan instalazioa duten aurretik burututako beste proiektu batzuek aldeko txostenak jaso dituztela aintzat hartuta.

Gure eskaerari erantzunez, Pasaiako Udalak udal zerbitzu teknikoek bi txosten bidali zizkigun. Horietan azaltzen du ezinezkoa dela komunitate horiek egindako eskaeraren aldeko erabakia ematea, Pasaiako arau subsidiarioetako 175.2 artikuluari buruz udalak egiten duen interpretazioak ezezko erabakia justifikatzen baitu. Udalaren iritziz, horrek udaleko teknikariei interpretazio tarte bat izatea ahalbidetzen die *“eraketa arkitektonikoan integratzea”* bezalako kontzeptuetan. Horren ondorioz eskatu du udalak gas instalazioa kanpoko fatxadatik eramaten denean estali egin behar dela. Beste komunitate batzuetako aurrekarietara dagokienez, udalak adierazi du kontzeptu horri buruzko interpretazioa ez dela aldatu, baina kontzeptu hori aplikatzerakoan orain zorrotzagoak direla.

Udalaren jardueraren arrazoia ez da ondare katalogatua babestea, baizik eta hirigintzako antolamenduak dakarren *“estetika eta itxurazko baloreak”* zaintzearen interes publikoa. Horregatik, Pasaiako Udalak, gaur egun, behar bezala estalita dauden gas hodiak instalatzea bermatzen duten konponbideak eskatzen ditu. Adibide modura udalerriko eraikin bat aipatzen du. Udalak obra baimendu du hodiak fatxadako kutxa edo zorro aireztatu baten bidez –gero azken ukitua emanez– horman sartzeko. Adierazi du hodiak *“horman sartuta eta kutxa aireztatuan”* jartzeak Eusko Jaurlaritzako Industria Ordezkaritzaren eskakizun teknikoak betetzen dituela.

Nolanahi ere, Pasaiako Udalak adierazi du herritarrek aplikagarriak diren baldintza juridiko eta teknikoei buruz informazioa eskuratzeko eta orientabidea





jasotzeko duten eskubidea bermatzen saiatu dela, beharrezkoa izan den informazioa bidaliz eta beharrezkoak izan diren bilerak adostuz.

Erantzun hori ikusirik, kexa-espediente honi buruz, erreklamazioak hizpide duenari dagokionez, gure behin betiko gogoetak helaraztea egokia dela pentsatu dugu:

Gogoetak

1. Erreklamazio honek hizpide du, aipatutako higiezinetak jabeekideen komunitateek beren erreklamazioan aipatu duten moduan, konponbide bat aurkitzeko ezintasuna eraikin horiek gas naturala eramateko sarea beren etxetaraino irits dadila lor dezaten, araudian ezarritako baldintza tekniko eta urbanistikoak betetzen dituen instalazio baten bidez.

Hasteko, erabiltzaileek gas naturalaren hornidura sarea eskuratzeak duen interes soziala aipatu behar dugu. Sarea behar bezala eskura dezatela bermatzeko, ordenamendu juridikoan ezarritako betekizunak koordinatu behar dira. Alde horretatik, proiektuak industria araubideak ezartzen dituen baldintza teknikoak bete behar ditu, gas naturala eramateko sarea ziur eskuratu ahal izateko. Era berean, egokitasun teknikoa justifikatu ondoren, udal administrazioak instalazioei ornamentu eta estetika gaii buruzko hainbat baldintza jar diezazkieke.

2. Gas instalazioa eraikin bakoitzeko etxebizitzetan jartzeko baldintzak 34/1998 Legeak jasotzen ditu eta baita 919/2006 Errege Dekretuak ere. Lehenengoa hidrokarburu sektoreari buruzkoa da eta bigarrenak erregai gaseosoak erabiltzeko eta eramateko eskatzen diren baldintza teknikoak arautzen ditu. Araudi horrek UNE 60670:2005 arau teknikoari eusten dio. Horren laugarren atalak, irizpide orokor gisa, honakoa ezartzen du: *"gas instalazioak jartzerakoan hodiak bistan egon behar dira edo zorro edo tutuen barruan jarri behar dira, erabilgarriak diren bitartean, lurpetik igaro behar duten zatiak izan ezik, edonoiz guztiz edo zatika konpondu edo ordezkatu ahal izateko"*. Bestalde, horman sartzen diren hodiak, horma zeharkatu behar denean soilik jartzen dira.

Zehaztapen horiei jarraiki, Industria Saileko Gipuzkoako Lurralde Bulegoaren txostenaren arabera, gas instalazioak indarrean dagoen araudiari zehatz-mehatz egokitu behar zaizkio. Hortaz, ezinezkoa da kanalizazioak fatxadako horman sartzea proposatzen duen proiektuari baimena ematea.

Hodiak horman sartzea ezinezkoa izateak, horma zeharkatu behar denean izan ezik, instalazioaren ibilbide osoa ikustea ahalbidetzen duen edo zorro edo





tutuen barruan egotea ahalbidetzen duen diseinua eskatzen du. Hain zuzen ere, araudi teknikoak, UNEko 4.4 atalean, bigarren modu hori ezartzen du *"dekorazio arrazoiengatik hodiak estaltzeko"*.

3. Era berean, obren proiektuak plangintzako arau subsidiarioetan jasotako udal ordenantzetan ezarritakoaren arabera izan behar du. Udalaren txostenak dioen moduan, hirigintzako antolamendua plangintza ahalmenaren arabera da, eta hori, beti, udal administrazioei dagokie. Ahalmen horri esker, organo eskudunek irizpide edo zehaztapenak ezartzen dituzte itxura morfologiko eta estetikoari buruz eta eraikitzeko segurtasunaren baldintzei buruz. Hori egin arren, hirigintzako antolamenduak aintzat hartu behar ditu eraikitzeo betekizun teknikoak, kasu honetan, industria segurtasunari buruzkoak. Nolanahi ere, aipatu behar da diskrezionalitate hori mugatua dela eta botere aldaketari buruzko kontrolen, arbitrariotasunaren edo hartutako irizpidearen justifikazio faltaren arabera dela.

Lehen aipatu dugun moduan, Pasaiako arau subsidiarioetako 175. artikulua ezartzen du gas kanalizazio bertikalak barruan jarri behar direla edo gasa eramateko aireztatutako kutxa baten bidez eta eskuragarri jarri behar direla. Arau horrek hodiak barneko patioetatik joateko lehentasuna ezartzen du. Hala ere, eraikinaren kanpoko fatxadan jartzeko aukera ematen du. Horretarako, instalazioak behar bezala estalita egon behar du. Konponbide estetikoari buruzko zerrenda irekian, hirigintzako antolamenduak ahalbidetzen du instalazioa esekilekuen barruan jartzea, sareta batean, aireztatutako kutxa baten barruan edo udalak eraketa arkitektonikoaren fatxadan sartzea egokitzen duten beste kasu horietan.

Bi premisen arabera, jabeakideen komunitateek proiektu bat aurkeztu behar dute eta proiektu horrek industriako araudian ezarritakoa bete behar du eta hirigintzara egokitzen dela justifikatu behar du.

Laburbilduz, barneko patioari ez duten aurreko eraikinetan instalazioa jarri ahal izango da eraikinaren kanpoko fatxadetan, betiere, hodiak horman sartzen ez badira (araudi teknikoak) eta behar bezala estaltzen direnean (hirigintzako araudia).

4. Araudi teknikoak betetzeari dagokionez, Industria Sailak Pasaiako Udalari bidalitako txostenak dio gas instalazioa estaltzen duten konponbideak zalantzarik gabe ezinezkoak direla. Izan ere, industria segurtasunaren araudi teknikoaren aurka doaz -araudiak ezartzen du hodiekin aireztatuta edo eskuragarri egon behar dutela-.





Arau teknikoek ezartzen dute hodie ibilbide osoan bistan egon behar dutela edo, estetika eta itxura dela-eta ikusi ezin direnean, zorro edo tutuen barruan ezkutatu behar direla.

Aitzitik, udalak adierazi du teknikoki egokia dela gas naturaleko instalazio bat zorro aireztatu baten barruan sartuta egotea eta, gero, luzitzea eta horma barruan sartzea. Ez dagokio erakunde honi udalaren txostenean azaldutako adibideari buruzko balorazio teknikoa egitea. Hala ere, udalaren txostenak ez du aipatzen instalazio hori Naturgasek edo Eusko Jaurlaritzaren Industria Ordezkaritzak egiteko berariazko baimenik.

Bi irizpideen artean dagoen kontraesana ikusirik, erakunde honen ustez Pasaiaiko Udalak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailera jo beharko luke, industria segurtasuneko araudiak ezartzen dituen irizpide teknikoak argitzeko eta araudi hori txostenean azaldutako horman sartutako instalazio aireztatua bezalako kasuetan betetzeko.

5. Gai hori zehaztu ondoren, Pasaiaiko arau subsidiarioek gas naturala jartzeko kanalizazio bertikalak ahalbidetzeko ematen dituzten baldintzak aintzat hartu behar dira.

Pasaiaiko arau subsidiarioetan ezarritako betekizunei dagokienez, 175.2 artikulua hitzez hitz esaten duena aintzat hartu behar da. Artikulu horrek gas naturaleko kanalizazioak eraikineko kanpoko fatxadatik igarotzea ahalbidetzen du hodiak eramateko kutxa baten bidez. Hortaz, araudiak ezartzen du instalazioa behar bezala estali behar dela eta hori onargarria izango litzatekeen kasu batzuk zerrenda ireki batean ezartzen ditu. Zerrenda horretan hodiak aireztatutako kutxa batean biltzea bezalako konponbide egokiak agertzen dira. Era berean, beste konponbide batzuk ere ontzat ematen ditu; horietan, udalak interpretatzeko tarte bat du, fatxadaren eraketa arkitektonikoan modu egokian sartzeko ote diren erabakitzeke.

Aipatu behar da lizentziak ematea edo ukatzea araututa dagoela. Hortaz, aurkeztutako proiektuak aplikagarria den araudia betetzen badu, udalak, ezinbestean, lizentzia eman behar du.

Alde horretatik, berriro aipatu behar dugu udal arauaren testuak, hitzez hitz, erreklamatzailiek instalazio proiektuan proposatutako konponbideak ahalbidetzen dituela. Proposamen horrek hodiak kanalizazio edo kutxa aireztatu batean sartuz estaltzea aipatzen du.

6. Beste gai bat izango litzateke, zalantzak daudenean, edo zehaztu gabeko kontzeptu juridikoak aipatzen direnean, onartutako araudia aplikatzea eta





bildutako zehaztapenak interpretatzea. Kasu horietan, espedientea ebazteko eskumena duen organoak interpretazio teknikorako tarte bat izango du.

Kasu honetan ez. Aurreko puntuan argitu dugun moduan, aurkeztutako instalazio proiektuetako konponbidea bat dator 175.2 artikuluko zerrendarekin; horrek kanpoko kanalizazioak behar bezala estaliak daudela esaten baitu.

Udalak, beste batzuetan, zerrendan agertzen ez diren beste aukera batzuk onartu izan ditu, eraketa arkitektonikoari behar bezala egokitzen zaizkielako (bistan geratzen diren hodiak, fatxadako kolore berdinarekin margotuak), eta horiek interpretatzeko aukerak hor darrai.

Udalak aurretik hartutako erabakien aldaketa justifikatzen du "eraketa arkitektonikoan integratzea" kontzeptuaren interpretazio teknikoaren bidez. Pasaiko Udalak hasieran horrelako konponbideak onartu zituen eraikin batzuetarako, baina kontzeptu horren interpretazioa garatu egin da eta kontzeptu hori gaur egun zorrotzako aplikatzen da. Jarrera hori justifikatzeko, udalak irizpide estetikoak aipatzen ditu.

Aipatu behar da aukera bat onartzeko edo ukatzeko udalak arrazoiak ematea garrantzitsua dela, batez ere, aukera hori gaur egun arte onartua izan denean, arazo estetikorik agertu gabe. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.5. artikulua araber, ukatze ebazpena behar bezala arrazoitzen behar da eta proiektua kontraesan dagoela esateko arauak argi eta garbi azaldu behar dira.

Gainera, administrazio doktrinak dio aurrekari administratiboak administrazioa lotesten duela eta, hortaz, banatu ahal izateko, organo eskudunak zorrotasun eta zehaztasun handiagoko arrazoiak eman behar ditu ukatze ebazpenean.

Udalari gogorarazi behar diogu administrazio oneko printzipioaren arabera, administrazioek beren jardun administratiboak behar bezala arrazoitzen betebeharra dutela. Betebehar horren helburua da administrazioak ebazpena emateko izan dituen arrazoiak herritarrei helaraztea, behar izanez gero aurka egiteko aukera izan dezaten. Jurisprudentziak, ordea, orokortutako balorazioak, zehaztugabeak edo estereotipatuak motibaziorik ezaren ustezkotzat jotzen ditu.

Udaleko aparejadorearen txostenak ez du aukera hori onartzen, bere ustez, ondare urbanizatua berreskuratzearen kontrakoa delako eta fatxadan hodiak integratzeko eraketa irizpide falta absolutua delako.





Hala ere, irizpide aldaketa horren aurrean, udalak ez du justifikatu gas kanalizazioa jartzeak ondare urbanizatua berreskuratzea zenbateraino galarazten duen. Izan ere, neurri hori positiboa da, eraikinari balioa ematen diolako.

Era berean, aldaketaren bat jasan dezaketen alderdi estetikoetarako dagokienez, bidalitako txostenek ez dute horri buruzko balorazio edo justifikaziorik ematen eraikinaren atzeko fatxadetan dagoen instalazio batean hodiak bistan egoteak –fatxadako kolorearekin bat datozenean eta Pasaia Donibaneko behaketa puntu guztietatik nabaritzen ez direnean– inguru harmonikoa aldatzeari buruz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

3/2010 GOMENDIOA, otsailaren 19koa, Pasaia Udalari egina

Pasaia Udalak gas kanalizazioak jartzeko lizentziak eman beharko ditu, hodiak kanpoko fatxadatik eraman behar direnean, betiere, proposamenean hodiak kutxa aireztatu eta eskuragarri baten bidez estaltzen badira, industria segurtasuneko araudiaren arabera eta arau subsidiarioetako 175.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Pasaia Udalak Eusko Jaurlaritzako Industria Ordezkaritzarekin koordinatu beharko ditu gas instalazioak baimentzeko industria segurtasuneko araudian ezarritako irizpide teknikoak, batez ere, horma sartutako instalazioa eta instalazio aireztatuari buruzkoak.

